Battittu Coyosen sarrera-hitzaldia
2011/06/25 Maule (Xiberoa)

Bi Zuberoako koblakari gazte

Ibai Capot-Thornary

Eüskara ez dakitenek ahal kurtsoak hartü
aldiz badakitenek behar da mintzatü
eta posible bada hizkuntza azkartü
zeren eüskarak eüskaldün egiten beikütü

Johañe Sarraillet

Egünko besta handi eta eder hontan
Orai nahi deizüet gorenetik erran,
Egün jente bat haboro da euskalzainetan
Orai euskalzain bat haboro Xiberotarretan

Ibai Capot-Thornary

Ikastolan ere da han eüskara ikasten
bena hori üken aitzin hanitx borrokatzen
eta orai ikastola ari da handitzen
eta eüskararen segida ere segürtatzen

Johañe Sarraillet

Goizetik ülüntzealat, eüskaraz ari egün oroz
Xiberotarrak gira eta hortaz uros,
Batean eüskaraz elestan, bestean eüskaraz bertsoz
Ordüan eskerrik hanitx, zuri Battitta Coyos